



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko azaroaren 4a

126. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-24/CCO-00023. “Nafarroako Arartekoaren urteko kontuak, 2023” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganderak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/CCO-00023. “Nafarroako Arartekoaren urteko kontuak, 2023” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Kontuen Ganberak “Nafarroako Arartekoaren urteko kontuak, 2023” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. “Nafarroako Arartekoaren urteko kontuak, 2023” fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA*Orrialdea*

| | |
|---|----|
| I. SARRERA | 4 |
| II. HELBURUAK ETA IRISMENA | 4 |
| III. IRITZIA..... | 5 |
| III.1 Auditoretza finantzarioko iritzia | 5 |
| III.2 Legedi-betetzeari buruzko iritzia | 5 |
| IV. IRITZIAREN OINARRIA | 5 |
| V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK..... | 5 |
| VI. ARARTEKOAREN ERANTZUKIZUNA | 6 |
| VII. KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA | 6 |
| VIII. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA | 7 |
| 1. GEHIGARRIA. ARARTEKOAREN 2023KO URTEKO KONTUEN LABURPENA | 8 |
| 1.1 2023ko aurrekontuaren likidazioa | 8 |
| 1.2 2023ko aurrekontu-emaizta..... | 8 |
| 1.3 Diruzaintza-gerakina, 2023ko abenduaren 31koa..... | 9 |
| 1.4 2023ko abenduaren 31ko balantzea..... | 9 |
| 1.5 2023ko ekonomia- eta ondare-emaiztaren kontua..... | 10 |
| 1.6 Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria, 2023 | 11 |
| 1.7 2023ko diru-fluxuen egoera-orria | 11 |
| 2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO ARARTEKOA | 12 |
| 3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA..... | 12 |
| 4. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK | 13 |
| 4.1 Egindako jarduna | 13 |
| 4.2 Aurrekontu-likidazioa..... | 14 |
| 4.3 Langileria-gastuak..... | 14 |
| 4.4 Administrazio-kontratazioa | 15 |
| 4.5 Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak | 15 |

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, berari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2024rako bere jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Arartekoaren 2023ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu.

Landa-lana 2024ko ekainean egin du lantalde batek, zeina osatu baitute auditoriako teknikari batek eta auditore batek. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren ere izan dute.

Jarduketa honen emaitzen berri eman zitzaion Nafarroako Arartekoari, egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan kasua bazen, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan xedatuari jarraituz. Jarritako epea iraganda, ez zen alegaziorik aurkeztu.

Arartekoaren langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntza dela eta.

Txosten honetako datu guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Eman-dako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildutako datuen batura.

II. HELBURUAK ETA IRISMENA

Arartekoaren 2023ko ekitaldiko urteko kontuez egin dugu finantzen eta legezkotasun-betetzearen fiskalizazioa, honakoei buruzko iritzia adierazte aldera:

- Ea 2023ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi muntadun guztietan, irudi zehatza erakusten duten Arartekoaren 2023ko abenduaren 31ko ondareaz eta finantza-egoeraz, bai eta data horretan amaitutako urte-ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontuko ez ere, aplikatzekoa den informazio finantzarioari buruzko arau-esparruari jarraiturik eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei.

- Ea Nafarroako Arartekoaren 2023ko ekitaldiari buruzko urteko kontuetan jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat ote datozen, alderdi muntadun guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

Lanaren norainokoa Arartekoaren 2023ko urteko kontuak dira, zeinek kontabilitateko egoera-orri hauek barne hartzen baitituzte:

- Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.
- Balantzea.
- Emaitza ekonomikoari eta ondarearen arloko emaitzari buruzko kontua.
- Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria
- Diru-fluxuen egoera-orria.
- Oroitidazkia.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoak 2023ko ekitaldia hartzen du, baina beste ekitaldi batzuei buruz ere egin dira behar diren egiaztapenak, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

III. IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, Arartekoaren urteko kontuak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatzen dituzte kontu horiek: 2023ko abenduaren 31ko balantzeak, emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontuak, ondare garbian izandako aldaketen egoera-orriak, eskudiru-fluxuen egoera-orriak, aurrekontuko likidazioaren egoera-orriak eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion memoriak. Orobat egin du legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioa Artekoaren 2023ko ekitaldiari buruz.

III.1 AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

Gure iritziz, 2023ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi muntadun guztietan, irudi zehatza erakusten dute Arartekoaren 2023ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari buruz. Halaber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontuak islatzen dituzte, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzeko den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuetako printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

III.2 LEGEDI-BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Arartekoaren 2023ko ekitaldiko jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta urteko kontuetan jasotako informazioa bat datoz, alderdi muntadun guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

IV. IRITZIAREN OINARRIA

Kanpo-kontrolako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 200 arauan eta legedi-betetzearen fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 400 arauan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio-gida praktikoa (GPF-OCEX) erabili ditugu. Aurrerago deskribatzen dira arau horien indarrez ditugun erantzukizunak, gure txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean, urteko kontuez eta legedia betetzeari buruzko fiskalizazioaz denaz bezainbatean.

Urteko kontuei eta legedi-betetzeari buruzko gure fiskalizazioan aplikatzekoak diren etikaren eta independentzia-babesaren arloko eskakizunekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen dio finantzei eta legedi-betetzeari buruzko gure iritziari.

V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIK

Auditoretzako gai giltzarriak dira gure iritzi profesionalaren arabera munta handiena izan dutenak 2023ko urteko kontuez egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek urteko kontuen osotasunari buruzko auditoretzaren testuinguruan eta kontu orokorreari buruzko iritzia taxutzean jorratu ditugu, eta ez dugu bereiz azaltzen horien gaineko iritzirik.

Ondorioztatu dugu gure fiskalizazioan ez dagoela jakinarazi beharreko gai giltzarriak.

VI. ARARTEKOAREN ERANTZUKIZUNA

Arartekoaren erantzukizuna da urteko kontuak egitea, zeinak Nafarroako Parlamentuari igorriko baitzikio kontu-hartzaileak horiek halako moldez prestatu ondoren non Arartekoaren aurrekontu-likidazioaren, ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela emanen baitute, informazio finantzarioari buruz aplikatzekoa den araudia beterik. Halaber, bermatu beharko du aipatu kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin.

VII. KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Helburutzat dugu taxuzko ziurtasun bat lortzea urteko kontuen multzoan iruzur edo errore onoriozko akats materialik ez egoteaz, eta kontu horietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa araudi indardunarekin bat etortzeaz, erregulartasunaren fiskalizazioarako gure txostena eman ahal izateko, gure iritzia jasotzen duena.

Arrazoizko ziurtasun hori ziurtasun maila handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontrolako organoei buruzko araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen duenik akats material bat edo urraketa muntadun bat, halakorik dagoenean. Akatsak iruzurraren edo errore onorio izan daitezke, edo legezkotasuna ez betetzearen ondorio, eta akats materialtzat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta, baldin eta zentzuz aurreikusi ahal bada txostenen erabiltzaile diren pertsonen erabaki ekonomikoetan eragina izanen dutela.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo-kontrolako organoen araudiarekin bat etorriz, gure iritzia profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan. Gainera:

- Identifikatu eta baloratu egiten ditugu iruzur edo oker baten ondoriozko akats materiala egoteko eta legeak ez betetzeko arriskuak, arrisku horiei erantzuteko auditoretza-prozedurak taxutzen eta aplikatzen ditugu, eta auditoretzako behar adinako eta behar bezalako ebidentzia lortzen dugu gure iritzari oinarri emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material edo urraketa bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errearen ondoriozko akats material baten kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean, tartean izan daitezke kolusioa, faltsutzea, nahitako omisioak, propio eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.
- Barne-kontrola dela-eta fiskalizazioarako muntazkoa den ezagutza lortzen dugu inguruabarren arabera egoki diren auditoretza-prozedurak taxutze aldera, eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzirik emate aldera.
- Ebaluatzen dugu ea aplikaturiko kontabilitate-politikak egoki diren, eta arrazoizkoak ote diren kontabilitate-estimazioak nahiz kudeatze-organismoak emandako informazioa.
- Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta ea urteko kontuek zehatz irudikatzen dituzten transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Erakundearen gobernu-organoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, planifikatutako auditoria-proben norainokoaz eta horiek egiteko uneaz aritzeko, bai eta fiskalizazioaren aurkikuntza esanguratsuez eta fiskalizazioan zehar barne-kontrolari buruz identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri ere.

VIII. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Aurreko txostenetan jasotako gomendio garrantzitsu hau bete da fiskalizatutako ekitaldian:

- *Nafarroako Arartekoaren plantilla organikoan hutsik dagoen administrari-lanpostua behin beti-koz betetzea, langile kontratudun batek betetzen baitu 2008az gero.*

Javier Marticorena Chapa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2024ko uztailaren 3an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

1. GEHIGARRIA. ARARTEKOAREN 2023KO URTEKO KONTUEN LABURPENA**1.1 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

Diru-sarrerak kapituluz kapituluz

| Kapitulua | Hasierako aurreikuspenak | Behin betiko aurreikuspenak | Aitorturiko eskubideak | Betetako portzentajea | Kobrantzak | Kobrantzen ehunekoa |
|--------------------------------------|--------------------------|-----------------------------|------------------------|-----------------------|------------------|---------------------|
| 3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak | 20 | 20 | - | - | - | - |
| 4. Transferentzia arruntak | 1.033.560 | 1.033.560 | 1.033.560 | 100 | 1.033.560 | 100 |
| 5. Ondare bidezko diru-sarrerak | 20 | 20 | - | - | - | - |
| 7. Kapital-transferentziak | 40.240 | 40.240 | 40.240 | 100 | 40.240 | 100 |
| 8. Finantza-aktiboak | 40 | 40 | - | - | - | - |
| 9. Finantza-pasiboak | 20 | 20 | - | - | - | - |
| Guztira | 1.073.900 | 1.073.900 | 1.073.800 | 100 | 1.073.800 | 100 |

Gastuak, kapituluz kapituluz

| Kapitulua | Hasierako kredituak | Behin betiko kredituak | Betebehar onartuak | Betetzearen ehunekoa | Ordainketak | Ordainketen ehunekoa |
|-------------------------------|---------------------|------------------------|--------------------|----------------------|----------------|----------------------|
| 1. Langileria-gastuak | 754.300 | 754.300 | 705.488 | 94 | 705.488 | 100 |
| 2. Ond. ar. eta zerb. gastuak | 239.300 | 239.300 | 187.758 | 78 | 185.224 | 99 |
| 4. Transferentzia arruntak | 40.000 | 40.000 | 32.585 | 81 | 32.585 | 100 |
| 6. Inbertsio errealak | 40.000 | 40.000 | 25.443 | 64 | 23.555 | 93 |
| 8. Finantza-aktiboak | 200 | 200 | - | - | - | - |
| 9. Finantza-pasiboak | 100 | 100 | - | - | - | - |
| Guztira | 1.073.900 | 1.073.900 | 951.274 | 89 | 946.851 | 100 |

1.2 2023KO AURREKONTU-EMAITZA

| Kontzeptuak | 2022 | | | | 2023 | | | |
|--|------------------------------|-------------------------------|----------|--------------------|------------------------------|-------------------------------|------------|--------------------|
| | Aitorturiko eskubide garbiak | Aitortutako betebehar garbiak | Doitzeak | Aurrekontu-emaitza | Aitortutako eskubide garbiak | Aitortutako betebehar garbiak | Doikuntzak | Aurrekontu-emaitza |
| a. Eragiketa arruntak | 843.507 | 836.318 | - | 7.189 | 1.033.560 | 925.831 | - | 107.729 |
| b. Kapital-eragiketak | 30.240 | 29.407 | - | 833 | 40.240 | 25.443 | - | 14.798 |
| c. Merkataritza-eragiketak | - | - | - | - | - | - | - | - |
| 1. Eragiketa ez-finantzarioak, guztira (a+b+c) | 873.747 | 865.725 | - | 8.022 | 1.073.800 | 951.274 | - | 122.526 |
| d. Finantza-aktiboak | - | - | - | - | - | - | - | - |
| e. Pasibo finantzarioak | - | - | - | - | - | - | - | - |
| 2. Finantza-eragiketak, guztira (d+e) | - | - | - | - | - | - | - | - |
| I. Ekitaldiko aurrekontu-emaitza (I=1+2) | 873.747 | 865.725 | - | 8.022 | 1.073.800 | 951.274 | - | 122.526 |
| Doikuntzak | | | | | | | | |
| 3. Gastatutako kredituak, atxiki gabeko diruzaintzako gerakinarekin finantzuak | | | - | | | | - | |
| 4. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze negatiboak | | | - | | | | - | |
| 5. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze positiboak | | | - | | | | - | |
| II. Doikuntzak, guztira (II=3+4+5) | | | - | | | | - | |
| Aurrekontu-emaitza doitua (I+II) | | | | 8.022 | | | | 122.526 |

1.3 DIRUZAINZTA-GERAKINA, 2023KO ABENDUAREN 31KOA

| Kontzeptua | 2022ko ekitaldia | 2023ko ekitaldia |
|---|------------------|------------------|
| 1. (+) Funts likidoak | 62.815 | 180.720 |
| 2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak | - | - |
| (+) Ekitaldiko aurrekontuetakoak | - | - |
| (+) Aurrekontu itxietakoak | - | - |
| (+) Aurrekontukoak ez diren eragiketekoak | - | - |
| (+) Merkataritza-eragiketekoak | - | - |
| 3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak | 62.815 | 180.720 |
| (+) Ekitaldiko aurrekontutik | 4.053 | 4.422 |
| (+) Aurrekontu itxietatik | - | - |
| (+) Aurrekontukoak ez diren eragiketekoak | 58.763 | 176.297 |
| (+) Merkataritza-eragiketetatik | - | - |
| 4. (+) Aplikatzeko dauden partidak | - | - |
| (+) Eginiko kobrantzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak | - | - |
| (+) Eginiko ordainketak, behin betikoz aplikatzeko daudenak | - | - |
| I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+2-3+4) | - | - |
| II. Finantzaketa atxikiaren gaindikina | - | - |
| III. Saldo kobragaitzak | - | - |
| IV. Atxiki gabeko diruzaintzako gerakina (I-II-III) | - | - |

1.4 2023KO ABENDUAREN 31KO BALANTZEA

(Emitza aplikatu ondoren)

| Aktiboa | 2022 | 2023 |
|--|----------------|------------------|
| A) Aktibo ez-korrontea | 219.669 | 1.764.968 |
| I. Ibilgetu ukiezina | 11.444 | 10.351 |
| 3. Aplikazio informatikoak | 11.444 | 10.351 |
| II. Ibilgetu materiala | 208.225 | 1.754.616 |
| 1. Lursailak | | 1.356.606 |
| 2. Eraikuntzak | 98.062 | 279.703 |
| 4. Ondare historikoko ondasunak | 42.257 | 42.257 |
| 5. Bestelako ibilgetu materiala | 67.907 | 76.050 |
| Makinak, instalazioak eta tresnak | 6.556 | 8.339 |
| Altzariak eta tresneria | 2.724 | 12.495 |
| Informazioa prozesatzeko ekipamenduak | 28.229 | 23.462 |
| Bestelako ibilgetu materiala | 30.397 | 31.755 |
| B) Aktibo korrontea | 62.815 | 180.720 |
| VII. Dirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk | 62.815 | 180.720 |
| 2. Diruzaintza | 62.815 | 180.720 |
| Kutxa | 315 | 209,89 |
| Bankuak eta kreditu-erakundeak | 62.501 | 180.510 |
| Aktiboa, guztira | 282.484 | 1.945.687 |

| Ondare garbia eta pasiboa | 2022 | 2023 |
|--|----------------|------------------|
| A) Ondare garbia | 219.669 | 1.764.968 |
| I. Jarritako ondarea | - | 1731329 |
| II. Sortutako ondarea | 219.669 | 33.639 |
| 1. Aurreko ekitaldietako emaitzak | 219.669 | 33.639 |
| Ondarea | 225.131 | 39.101 |
| Lagapenean emandako ondarea | -5.462 | -5.462 |
| C) Pasibo korrantea | 62.815 | 180.720 |
| IV. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontu batzuk | 62.815 | 180.720 |
| 1. Kudeaketa-eragiketengatiko hartzekodunak | 4.053 | 4.422 |
| 3. Administrazio publikoak | 58.763 | 176.297 |
| Ogasun Publikoa, PFEZagatik hartzekodun | 36.551 | 38.586 |
| Ogasun Publikoa, kreditu-itzulketarengatik | 8.022 | 122.526 |
| Gizarte Segurantzza hartzekodun | 14.190 | 15.185 |
| Ondare garbia eta pasiboa, guztira | 282.484 | 1.945.687 |

1.5 2023KO EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

| | 2022 | 2023 |
|--|---------------|----------------|
| 2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak | 873.700 | 1.073.800 |
| a) Ekitaldikoak | 873.700 | 1.073.800 |
| a.2) Transferentziak | 873.700 | 1.073.800 |
| Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak | 30.240 | 40.240 |
| Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak | 843.460 | 1.033.560 |
| A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak, guztira | 873.700 | 1.073.800 |
| 8.Langile gastuak | -643.025 | -705.488 |
| a) Soldatak, lansariak eta antzekoak | -513.203 | -553.004 |
| Arartekoaren soldatak eta lansariak | -73.551 | -75.339 |
| Behin-behineko langileen soldatak eta lansariak | -308.454 | -337.852 |
| Funtzionarioen soldatak eta lansariak | -92.059 | -119.657 |
| Kontratupeko langileen soldatak eta lansariak | -39.138 | -20.156 |
| b) Gizarte-zamak | -129.822 | -152.484 |
| Enpresaren kargura dagoen Gizarte Segurantzza | -129.822 | -152.484 |
| 9.Egindako transferentziak eta emandako dirulaguntzak | -37.905 | -32.585 |
| 11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk | -155.388 | -187.758 |
| a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak | -155.388 | -187.758 |
| 12. Ibilgetuaren amortizazioa | -12.087 | -26.068 |
| B). Kudeaketa arrunteko gastuak, guztira (8+9+11+12) | -848.405 | -951.900 |
| I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A+B) | 25.295 | 121.900 |
| 13. Ibilgetu ez-finantzarioaren eta salgai dauden aktiboaren balio-galera eta haien besterentzearen emaitzak | -158 | - |
| b) Bajak eta besterentzeak | -158 | - |
| 14. Arruntak ez diren beste partida batzuk | 47 | - |
| II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza (I+13+14) | 25.184 | 121.900 |
| 15. Diru-sarrera finantzarioak | - | - |
| 16. Gastu finantzarioak | - | - |
| III. Finantza-eragiketen emaitza (15+16) | - | - |
| IV. Ekitaldiko emaitza garbia (aurrezkia edo desaurrezkia) (II+III) | 25.184 | 121.900 |

1.6 ONDARE GARBIA IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA-ORRIA, 2023

| | Jarritako on- darea | Sortutako ondarea | Guztira |
|--|------------------------|----------------------|------------------|
| Ondare garbia 2022ko ekitaldiaren bukaeran | 0 | 219.669 | 219.669 |
| Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketengatik eta zuzenketengatik egindako doikuntzak | 1.731.329 | -185.404 | 1.545.925 |
| 2023ko ekitaldiaren hasierako ondare garbi doitua | 1.731.329 | 34.265 | 1.765.594 |
| 2023ko ekitaldian ondare garbian izandako aldaketak | - | -626 | -626 |
| Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak | - | 121.900 | 121.900 |
| Jabea den entitatearekin egindako eragiketak | - | - | - |
| Ondare garbian izandako beste aldaketa batzuk | - | -122.526 | -122.526 |
| Ondare garbia, 2023ko ekitaldiaren bukaerakoa | 1.731.329 | 33.639 | 1.764.968 |

1.7 2023KO DIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA

| | 2022 | 2023 |
|---|---------|-----------|
| I. KUDEAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK | | |
| A) Kobrantzak: | 873.747 | 1.073.800 |
| 2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak | 873.700 | 1.073.800 |
| 5. Kobratutako interesak eta dibidenduak | - | - |
| 6. Beste kobrantza batzuk | 47 | - |
| B) Ordainketak: | 920.047 | 930.782 |
| 7. Langileria-gastuak | 643.025 | 705.488 |
| 8. Egindako transferentziak eta emandako dirulaguntzak | 37.905 | 32.585 |
| 10. Beste kudeaketa-gastu batzuk | 155.297 | 187.717 |
| 13. Beste ordainketa batzuk | 83.820 | 4.992 |
| Kudeaketa-jarduerengatiko diru-fluxu garbiak (+A-B) | -46.300 | 143.018 |
| II. INBERTSIO-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK | | |
| C) Kobrantzak: | - | - |
| 3. Inbertsio-jardueretako beste kobrantza batzuk | - | - |
| D) Ordainketak: | 27.848 | 25.114 |
| 4. Inbertsio errealean erosketa | 27.848 | 25.114 |
| Inbertsio-jarduerengatiko diru-fluxu garbiak (+C-D) | -27.848 | -25.114 |
| VI. ESKUDIRUAREN ETA HAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOEN HANDITZE/GUTXITZE GARBIA (I+II+III+IV+V) | -74.148 | 117.904 |
| Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren hasieran | 136.964 | 62.815 |
| Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren bukaeran | 62.815 | 180.720 |

2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO ARARTEKOA

Nafarroako Arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, xedetzat duena Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoak babesturiko eskubide eta askatasunen babes-maila defendatu eta hobetzea. Haren eginkizun nagusia da herritarrak babestea administrazioaren balizko abusu eta akatsen aurrean.

Urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoa Erreformatzekoak, 18. ter artikuluan estatutu-mailako erakundearen kategoriara jasotzen du Nafarroako Arartekoa.

Arartekoa Nafarroako Parlamentuak hautatua eta izendatua da, eta egiten duen kudeaketan lanarengatik urtero Nafarroako Parlamentuaren aurrean erantzuten du. Eginkizun dituenak gauzatzeko behar dituen aholkulariak eta konfiantzazko langileak askatasunez hautatzen eta kargutik kentzen ditu. Egun kargu hori betetzen duen pertsonak 2022ko martxoaren 23an hartu zuen postuaren jabetza, sei urterako.

2021ean, Nafarroako Arartekoaren eskumenak, eginkizunak eta ahalak areagotu egin dira: Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 20. artikuluen aldaketa, erakundearen eskumenak handitu, bitartekotza eginkizunak esleituz. Eginkizun hori gainerakoetatik bereizita dago, eta Arartekoak hautatutako aholkulari batek zuzendutako eginkizun-arlo espezifiko bat sortzea ahalbidetzen du.

Nafarroako Arartekoa, kontabilitaterako, kontu-hartzaitzarako, gastu-baimenerako, kontrataziorako eta ondasun eta eskubideen eskuratzeko, Nafarroako Parlamentuaren araubide beraren mende dago. Haren aurrekontu-proiektua Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartuta dago, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorren parte dira.

3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Nafarroako Arartekoari 2023an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

Estatuko araudia

- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu Publikoan dagoen Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriena.
- Kontabilitate Publikoaren 2010eko Plan Orokorra.

Foru araudia

- 4/2000 Foru Legea, uztailaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzkoa.
- 14/2004 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ondareari buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 35/2022 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak 1991ko martxoaren 20an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuak 2005eko azaroaren 23an onetsia.
- Barne-arauak, Arartekoaren erakundean kontu-hartze zeregina aurrera eramateari buruzkoak, 2007ko maiatzaren 2koak.

4. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaileentzat eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitezkeenak.

4.1 EGINDAKO JARDUNA

Arartekoaren urteko txostenaren arabera, honako hauek dira 2023an zehar erakundeak egindako jardueraren datu nagusiak:

- 3.583 jarduketa egin dira, 2022ko kopuruaren antzera. Hona xehetasunak:

| | Kopurua | % |
|---|--------------|------------|
| herritarren arretarako bulegoan artatutako kontsultak | 1.869 | 52 |
| Kexak | 1.436 | 40 |
| Bilerak | 157 | 4 |
| Gizarte-entitateekiko harremanak/bilerak | 34 | 1 |
| Ofiziozko egintzak | 28 | 1 |
| Bitartekaritza-espeditenteak. | 19 | 1 |
| Gardentasunaren Kontseiluaren saioak/ponentziak | 17 | 0 |
| Beste batzuk | 23 | 1 |
| Lehentasunezko jarduketak, guztira | 3.583 | 100 |

- 2023an 1.192 kexa aurkeztu dira, eta guztira 1.436 kexa kudeatu dira, honako koadroan azaldu bezala:

| | Kexa-kopurua | % |
|--------------------------------------|--------------|------------|
| 2023ko ekitaldiko kexak | 1.192 | 83 |
| 2022az geroztik ebazkizun | 220 | 15 |
| Aurreko ekitaldien jarraipena | 14 | 1 |
| Berrirekiak, aurreko ekitaldietakoak | 10 | 1 |
| Kudeatutako kexen kopurua | 1.436 | 100 |

- 2023an aurkeztutako kexak honako administrazioei buruzkoak ziren:

| Jomuga-entitatea | Kexa-kopurua | Ehunekoak |
|----------------------------------|--------------|------------|
| Foru Komunitateko Administrazioa | 620 | 52 |
| Toki entitateak | 353 | 30 |
| Estatuko administrazioa | 159 | 13 |
| Beste batzuk | 60 | 5 |
| Guztira | 1.192 | 100 |

- Kexen ondorioz, 454 ebazpen jaulki dira, ¹eta haietan biltzen dira 277 gomendio, 213 iradokizun eta legezko betebeharren 176 gogorarazpen.

¹ Arartekoak, ikerketaren ondoren, salatzailaren jarrera osoki edo aldez baietsi du.

4.2 AURREKONTU-LIKIDAZIOA

- Arartekoaren hasierako aurrekontuak 1.073.900 euroko gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenak jasotzen zituen; zenbateko hori bat dator behin betiko aurreikuspenekin.

- Aitortutako betebeharrak 951.274 eurokoak izan dira, eta ehuneko 89ko betetze-maila izan dute. 2022an, betebeharrak 865.725 eurokoak izan ziren.

- Aitortutako eskubideek 1.073.800 euro egin dute, eta betetze-maila ehuneko 100ekoa izan da. Diru-sarrera guztiak Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioetik heldu dira; horietatik, 1.033.560 euro funtzionamendu-gastuak finantzatzera bideratutako transferentzia arruntak dira, eta 40.240 euro, berriz, inbertsio-gastuetara bideratutako transferentziak.

- Arartekoak 2023an gatatutakoaren xedeak eta finantzaketa-iturriak, 100 euro bakoitzeko:

| Gastuaren izaera | Zenbatekoa | Finantzaketa-iturria | Zenbatekoa |
|---------------------------------|------------|--|------------|
| Langileria | 74 | Transferentzien bitartezko diru-sarrerak | 100 |
| Ondasun arruntak eta zerbitzuak | 20 | | |
| Transferentzia arruntak | 3 | | |
| Inbertsioak | 3 | | |
| | 100 | | 100 |

- Arartekoak, indarreko araudiari jarraituz, 122.526 euro itzuliko dizkio Foru Ogasunari. Zenbateko hori, ondoren erakusten den moduan, bat dator aurrekontu-emaizta doituarekin:

| Kontzeptua | Zenbatekoa |
|--|------------|
| Diru-sarrerak, guztira | 1.073.800 |
| Gastuak, guztira | 951.274 |
| Aurrekontu-superabita (aurrekontu-emaizta doituak) | 122.526 |
| Foru Ogasunari itzuli beharrekoa, guztira | 122.526 |

4.3 LANGILERIA-GASTUAK

Arartekoaren langile-gastuak 705.488 eurokoak izan ziren 2023an, 2022an baino ehuneko hamar gehiago, jarraian zehazten denez:

| Kontzeptua | Aitortutako betebeharrak garbiak (ABG), 2022 | ABG, 2023 | 2023/2022 aldea (%) |
|--|--|-----------|---------------------|
| Arartekoaren ordainsaria | 73.551 | 75.339 | 2 |
| Behin-behineko langileen lansariak | 308.454 | 337.852 | 10 |
| Funtzionarioen lansariak, guztira | 92.059 | 119.657 | 30 |
| Hautetsien Aldi baterako kontratua duten langileak | 39.138 | 20.156 | -48 |
| Gizarte Segurantza | 129.822 | 152.484 | 17 |
| Guztira | 643.025 | 705.488 | 10 |

Aldaketak berrikusi eta aztertu ditugu, eta egiaztatu dugu behar bezala oinarrituta eta dokumentatuta daudela.

Plantilla organikoa

Arartekoaren 2023rako plantilla organikoa 2023ko otsailaren 7ko 5/2023 Ebazpenaren bidez proposatu zitzaion Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, onets zezan. 2023ko apirilaren 5ean argitaratu zen NPAOn, 2022ko abenduaren 31ko funtzionario-zerrendarekin batera.

Honako hauek dira lanpostuak, azken plantilla organikoaren arabera:

| Sailkapena | 2023/12/31 |
|---|------------|
| Behin-behineko langileak (aholkulari teknikoak eta kabinetea) | 6 |
| Funtzionarioak | 3 |
| Guztira | 9 |

2023ko abenduaren 31n hamar pertsona ziren, Arartekoa barne, erakundean lan egiten zutenak.

2008az geroztik bazegoen kontratudun langile batek beteriko lanpostu huts bat, zeinari buruz Kontuen Ganberak lehenagoko txosten batzuetan aholkatzen baitzuen behin betikoz bete zedila. Postu hori bete zeko deia egin zen enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan, merezimendu-lehiaketako salbuespenezko sistema erabiliz murriztu ere, eta 2023ko uztailan bete zen behin betikoz.

4.4 ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Honako gastu-lagina aztertu dugu, bai eta, hala izan denean, erabilitako kontratazio-prozedura ere:

| Aurrekontu-partida | Aurrekontu-gastua, 2023 |
|--|-------------------------|
| Informazioa lantzeko ekipamenduak konpondu eta kontserbatzea | 17.308 |
| Liburuak eta bestelako argitalpenak editatzeko gastuak | 5.306 |
| Hornidurak | 42.976 |
| Bulegoko altzariak | 10.494 |

Egindako lanaren konklusioa da gastuak, oro har, zuzen kontabilizatuta eta justifikatuta dardela, eta araudian ezarritako epean ordaindu direla. Horrez gain, berrikusitako kontratazioak aplikatzekoa den araudiari jarraikiz egin ziren.

4.5 TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIENGATIKO DIRU-SARRERAK

Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak, hurrenez hurren, 1.033.560 eta 40.240 eurokoak izan ziren, diru-sarrera guztien ehuneko 100, hain zuzen ere. Haien betetze-maila ehuneko 100ekoa izan zen. Koadro honetan, 2022ko ekitaldiko diru-sarrerekiko konparazioa jaso da:

| Kontzeptua | AEG, 2022 | AEG, 2023 | Aldea (%) 2023/2022 |
|-------------------------|-----------|-----------|---------------------|
| Transferentzia arruntak | 843.460 | 1.033.560 | 23 |
| Kapital-transferentziak | 30.240 | 40.240 | 33 |

Egiaztatu dugu aurrekontu-informazioa koherentea dela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan jasota dagoenarekin.

